

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKAZARITZA SAILA

Foru Gobiernu Kontseiluaren 170/2020 Erabakia, martxoaren 24koa. Onespina ematea Leziñana Okako Administrazio Batzarrarekin 339 zenbakiko partzuergoa eratzeari eta partzuergoaren barruan sartzen den azalera basoberritzeko proiektuari

Maiatzaren 21eko 308/1996 Erabakiaren bidez, 244 zenbakiko partzuergoa eratu zen Arabako Foru Aldundiaren (AFA) eta Leziñana Okako Administrazio Batzarraren artean, eta 2 hektareako azalera basoberritu zen makal hibridoa sartuta (I-214 kлона) Leziñana Okako Administrazio Batzarraren Erriberagoitiko 3 poligonoko 791 eta 811 lurzatietan.

Handik urte batzuetara, abenduaren 5eko 974/2000 Erabakiaren bidez, 261 zenbakiko partzuergoa eratu zen bi erakunde publikoen artean, eta 3,96 hektareako azalera basoberritu zen makal hibridoa sartuta (I-214 kлона), Leziñana Okako Administrazio Batzarraren Erriberagoitiko 3 poligonoko 810 eta 811 lurzatietan.

2014ko ekainaren 23an, Leziñana Okako Administrazio Batzarrak eskatu zuen AFArekin partzuergoan zituen makalak mozteko (209, 244 eta 261 partzuergoak), eta Mendi Zerbitzuan 625/14 espedientea ireki zen.

Ikusita premiaz moztu beharra zegoela 244 eta 261 partzuergoetako zuhaitziaren zati bat, zorri lanigeroak (*Phloemyzus passerinii* Signoret) eta haizete gogorrek kalteak eragin zituztelako makaletan, 2017ko irailaren 25ean, 306 Foru Aginduen bidez, baimendu zen premiaz mozteko Erriberagoitiko 3 poligonoko 811 lurzatiko makalak, zeinek 244 eta 261 partzuergoak osatzen baitituzte.

Mozketa egin ondoren, AFaren Erregistro Orokorrean 2019ko azaroaren 4an jasotako idazki baten bidez, Leziñanako Administrazio Batzarrak eremua basoberritu nahi zuela jakinarazi zuen, eta eremu horretan beste landaketa baterako partzuergoa eratu zuen Mendi Zerbitzuarekin.

Hortaz, eremu hartara zenbait aldiz joan eta gero, landaketa proposamena idatzi zen, aintzat hartuta AFAko Natura Ondarearen Zerbitzuak eta Ebroko Konfederazio Hidrografikoak lehendik zegoen makaldia mozteko baimen ebazpenean ezarritako baldintzak.

Behin proposamena idatzi ondoren, 1,41 hektareako azalera basoberrituko da, eta lanak gauzatzeko oinarritzko aurrekontua 10.093,58 euro da (BEZa aparte).

Lanak gauzatzeko aurrekontu zenbatetsia kontuan izanik, kontratu txiki bezala izapidetu behar da, Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legeak 118.1 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Obra kontratu txikia denez, obren aurrekontua sartu da, halaxe ezartzen baitu Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legeak 118.2 artikuluan. Proiektuaren beharrari dagokionez, obren izaera, ezaugarriak eta garrantzia ikusita, ez da beharrezkoa.

Horretarako, eskaintzak aurkezteko eskatu zaie Lam Medioambiente SL, Explotaciones Forestales Jimenez Araba SL eta Jesús Bereini, eta bi eskaintza hauek aurkeztu dituzte (BEZa aparte):

Lam Medioambiente SL	9.299,93 euro
Explotaciones Forestales Jimenez Araba SL	9.932,82 euro
Jesús Berein	Ez du aurkeztu eskaintzarik

Aurkeztutako eskaintzak aztertuta, proposatzen da lanak Lam Medioambiente SL enpresari esleitzea, berme nahikorekin gauzatu ditzakeela jotzen baita, 10.229,93 euroko zenbatekoan, BEZa barne (ehuneko 10). Zenbateko hori behar bezala egindako fakturak aurkeztu ostean ordainduko da, Arabako Foru Aldundiaren 2020ko gastuen aurrekontuko 40.1.06 45.01 6.1.9.01.03.4 "Erretako eta andeatutako eremuak lehengoratzea" partidaren kontura.

Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legeak 118.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, espediente honetan ez da aldatu kontratuaren xedea kontrataziorako arau orokorrak aplikatzea saihesteko.

Horren ondorioz, Nekazaritza Saileko foru diputatuak proposatu eta Foru Gobernuaren Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran aztertu ondoren,

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Onespena ematea Arabako Foru Aldundiaren eta Leziñana Okako Administrazio Batzarraren artean 339 zenbakiko partzuergoa eratzeari Erriberagoitiko 3 poligonoko 811 lurzati, guztira 1,41 hektareako azalerarekin, basoberritze proposamenean jasotakoaren arabera. Bigarrena. Proposatutako partzuergoa arautuko duten klausulak:

a) Leziñanako Administrazio Batzarrak bere gain hartzen du goian aipatutako lursaila lagatzea Arabako Foru Aldundiak baso sartzeari egiteko.

b) Arabako Foru Aldundiak, berriz, bere gain hartuko du basoa sartzeko lanek eta azalera landatuak mantentzeak eragindako kostu osoa.

c) Partzuergoak 80 urte iraungo du, jatorrizko partzuergoa eratze erabakia hartu zenetik aurrera.

d) Landaketen aprobetxamendutik lor litezkeen onurak erdi bana egingo dira partzuergoko bi kideen artean.

Hirugarrena. Onespena ematea Erriberagoitiko 3 poligonoko 811 lurzati kalitatezko zurezko hostozabalak landatzeko lanak kontratatzeari (Leziñana Okako Administrazio Batzarrarenak, Arabako Foru Aldundiaren partzuergoan), kontratu txiki bidez eta 9.299,93 euroko aurrekontuarekin, BEZa aparte (zenbateko hori gehi ehuneko 10eko BEZaren 929, 99 euro; guztira, 10.229,93 euro, ehuneko 10eko BEZa barne), eta gauzatzeko 8 hilabeteko epearekin, baina betiere 2020ko abenduaren 31 baino lehen; eta lanak Lam Medioambiente SL enpresari esleitzeari (IFZ: B01568922), Arabako Foru Aldundiaren 2020ko gastuen aurrekontuko 40.1.06 45.01 6.1.9.01.03.4 "Erretako eta andeatutako eremuak lehengoratzea" aplikazioaren kontura (zorpekin erreferentzia: 20.1.20.105.1033/000).

Laugarrena. Foru administrazioko fakturen kontabilitate erregistroa sortu eta hori izapidetzeko prozedura onesten duen abenduaren 30eko 67/2014 Foru Dekretuak xedatutakoa betez, esleipendunak dagozkion faktura elektronikoak aurkeztu beharko ditu araututako eran.

Bosgarrena. Obren zenbatekoa ordaintzeko, aurrez behar bezala egindako faktura aurkeztu beharko da, aurreko xedapen zatian ezarritakoaren arabera.

Seigarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratu behar dela adieraztea.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko martxoaren 24a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Nekazaritza Saileko foru diputatua

EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO

Nekazaritza zuzendaria

MARÍA ASUNCIÓN QUINTANA URIARTE